


Claudius de Cap Blanc bulbagrafoa gogoan



ANTTON OLARIAGA



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

Joan den azaroaren 11n hil da Claudius de Cap Blanc. Bere buruaz beste egin du, tiroz, 69 urtetan. Gizon hori eroa zen, zioen administrazioak, ontasun naturala andeatzen zuelako, eta diru publikoz sustengatu arte garaikide ofiziala gaitzesten zuelako. Zizelkari hori zinezko artista zen, diote bere hurbilekoek: berezko ikuspegi etiko eta estetikoak zeukan gizakiaren historiaz, gizakia eta izadiaren arteko harremanez, emetasunaz. Presuna bera ezezaguna dut, baina haren obra ikusteko parada izan dut. Haren heriotzak hunkitu nau, artista gisa gutxietsia eta zigortua izan delako, eta horrengatik fin gaizto egin duelako.

Egiazko izena Jean-Claude Lagarde zuen, eta 1953an sortu zen, Okzitania Pirinioetako Ariège eskualdean, laborari etxe batean, bederatzi haurrideko familian. Eskola gazterik utziz eta anitz bidaiatu ondoan, berrogei bat urtetan hasi zen zizelkadura bitxiak egiten. Garai hartan, bere ideia zen ohartaraztea Historiaz dugun ezagutza partziala dela, Historiak “ziloak” dauzkala, eta frogatzea asmakizunez bete daitezkeela zilo horiek. Irudikatu zituen makinak edo pertsonaiak, izan ez direnak, baina izan

zitezkeenak, eta menturaz gure giza kezkek konpontzen jakinen zuketanak, adibidez, *Kalte zuzentzailea*, *Isuri alde-rantzikatzailea*, *Baketzaila*, *Hitz pisa-gailua*, *Iragana ezabagailua*. Obra bakoitzarendako, Claudius de Cap Blanc-ek azalpenak eman zituen, makina egile eta pertsonaia fiktiboen biografiak garatuz, alegiazko testuinguru historikoak zehaztuz, beti umorea edo ironiarekin. Affabuloscope (“Alegiaskopoa”) deitu museoa ere apailatu zuen Mas d’Azilen, berak, zizelkadura horiek erakusteko.

Azken hamabost urteetan, berriz, “bulbagrafo” bihurtu zen, berak zioen bezala. Hain zuzen ere, Jean Clottes-en hitzaldi bat entzun zuen 2007an, bulbaren zeinuz historiaurreko artean, eta geroztik argi izan zen harentzat *homo sapiens*aren bilakaeran, aluaren zeinua izan dela, duela 38.000 urte, lehen sinboloetarik. Claudius de Cap Blanc-en ustez, emetasunari gorazarre egiten dion marrazki hori izan da gizaki alfabetoetan lehen letra. Jakina da gainera, harpeetan marraztu zuten giza prehistorikoetan emazte asko izan dela. Bazen beraz garaia, Claudius de Cap Blanc-en ustez, milaka urtez nagusitu den pa-

triarkaltasunaren aurka altxatzeko eta gure arbasoen obra segitzeko. Ondorioz, Ariège departamenduko oihan eta mendi kasik guzietan ibili da, bulbak zizelkatuz zuhaitzetan edo harkaitzetan. Mas d’Azilko harpean ere aritu zen, historiaurrekoen lanari jarraikiz, baina ondare babestu andeatzaile zelakoan, eta proiektu artistiko ofizial bat tratatzen zuelakoan, presondegia zigorra eman zion administrazioak, eta isun potoloa. Halere, temati segitu zuen, baina oztopo gero eta gehiago ezarri zioten. Joan den hilabetean, eraiki zuen “bulba baratzea” osoki suntsitua aurkitu zuen, eta etsiturik, hiltzea nahiago izan du.

Tokiko prentsak “tragedia” hitza erabili du Claudius de Cap Blanc-en heriotza izendatzeko. Tragedien ezaugarria da, Aristotelesen arabera, halabeharrak kondenaturik daukala protagonista: zazpi ahalak egin ditzake bizirauteko, zortea saihesteko: alferrik. Antzerkiaren historian, destino gaitz horren irudia izan da lehenik dibinitatea, ondotik giza kondizioa bera. Bizitza errealean, haatik, arruntagoa eta negargarriagoa izan daiteke artisten fortuna manatzailea: administrazioa. ●